

ENOLOGIA BERRITZAILE MASTER OFIZIALA

UPV/EHU

EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN LANKIDETZAREKIN



PRESTAKUNTZA APROBETXAMENDU ONENEN SARIEN DEIALDIRAKO PROTOKOLOA

Helburua

Protokolo honek enologia berritzaileko master ofizialaren garapenean prestakuntza aprobetxamendu onenen sariak aukeratzeko prozedura ezartzen du. Sari hauek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin egindako lankidetzaproiektuaren baitan kokatzen dira. Proiektuaren izena "UPV/EHUko Enologia Berritzaileko Master Ofizialaren esparruan irakaskuntza-jarduerak garatzea" da, eta, besteak beste, Master-Amaierako Lan (MAL) berritzaileak garatzen laguntzen du, bai eta doktorego-tesiak garatzen hastea ere unibertsitate-departamentu, zentro teknologiko edo/eta lan esperimentalak upategian. Sarien deialdiak hauek finantzatzeko aukeren mende egongo dira.

Hautapenaren organo exekutiboa

Masterreko Batzorde Akademikoak (MBA) aukeratuko ditu sariak. Hautaketa egiteko, protokolo honetako irizpideak hartuko dira kontuan.

Hautagaien baldintzak

Hautagaiak sariak deitzen diren ikasturtean MALa defendatu eta titulu akademikoa lortzeko kreditu guztiak gaindituta izan beharko dituzten ikasleak izan beharko dute.

Proposamenen ardatz izango diren ikerketa-arloak eta gaiak unibertsitateko sailekin, zentro teknologikoekin edo/eta mahastizaintza eta ardogintzako enpresekin adostu behar dira.

Hautagaitzen epe eta aurkezpenak

Hautagaitzen aurkezpen epea urriko bigarren hamabostaldia izango da.

Hautagaitzak Farmazia Fakultateko idazkaritzan telematikoki aurkeztu beharko dira (secretariadealumnado.ff@ehu.eus). Eskabidea aurkeztutzat joko da jaso izanaren

agiria jaso ondoren. Agiri hori administrazio idazkaritzak emango du, idazkaritzaren onespenezekin.

Eskabideetan ondorengo agiri hauek aurkeztuko dira:

- MALaren memoria.
- Masterrean egindako eta gainditutako irakasgai guztien noten ziurtagiria (ofizioz eta kosturik gabe emango zaie hala eskatzen duten ikasleei, sarietarako hautagaitza aurkezteko helburuarekin)

Informazio hori fitxategi bakarrean bilduko da, eta honela identifikatuta bidaliko da: "Abizena_Iniziala_BiHiruHitzIzenburua_ENOL20xx" (dagokion urtea).

Saritutako ikasleen konpromisoak

Sarituak beren esperientziari buruzko berri bat egiteko konpromisoa hartuko dute, masterraren webgunean eta, ahal bada, Campusa aldizkari digitalean argitaratzeko.

Sariei dagokien atxikipena eta konturako sarrerak aplikatuko zaizkie. Nolanahi ere, saridunen erantzukizuna izango da aplikagarri zaizkien zerga-betebeharrak aitortzea eta onartzea.

Hautapen irizpideak

MBAk ondorengo ebaluazio-irizpide hauek kontuan hartuta hautatuko du hautagaia:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
<i>MA</i>leko proiektuaz (memoria)	<i>Gehienez 60 arte</i>
Gaiaren berritasuna	10
Gaiaren interesalckeretaren zehaztasun zientifikoa	10
Ikerketaren zehaztasun zientifikoa	10
Memoriaren edukiak (planteamendua, helburuak, koherentzia objektiboak-emaitzak-ondorioak...)	10
Idazketa (argitasuna eta irakurtzeko erraztasuna, terminologia...)	10
Elementu gehigarriak (taulak, eskemak, diagramak, formatua, bibliografia...)	5
MAL-eko nota	5
<i>HAUTAGAI</i>aren inguruan (noten ziurtagiria)	<i>Gehienez 40 arte</i>

Saritutako hautagaien iragartzea eta aldarrikatzea

MBA-ren azken erabakia, eskabide guztiak barematu ondoren, masterraren webgunean argitaratuko da eta saritutako ikasleari jakinaraziko zaio.

Saritutako ikasle guztiek Farmazia Fakultateko Idazkaritzak igorritako ziurtagiria jasoko dute.